

## **20. LEY ORGÁNICA 1/2004, DE 28 DE DICIEMBRE, DE MEDIDAS DE PROTECCIÓN INTEGRAL CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO**

(BOE nº 313, de 29 de diciembre de 2004)

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

I

La violencia de género no es un problema que afecte al ámbito privado. Al contrario, se manifiesta como el símbolo más brutal de la desigualdad existente en nuestra sociedad. Se trata de una violencia que se dirige sobre las mujeres por el hecho mismo de serlo, por ser consideradas, por sus agresores, carentes de los derechos mínimos de libertad, respeto y capacidad de decisión.

Nuestra Constitución incorpora en su artículo 15 el derecho de todos a la vida y a la integridad física y moral, sin que en ningún caso puedan ser sometidos a torturas ni a penas o tratos inhumanos o degradantes. Además, continúa nuestra Carta Magna, estos derechos vinculan a todos los poderes públicos y sólo por ley puede regularse su ejercicio.

La Organización de Naciones Unidas en la IV Conferencia Mundial de 1995 reconoció ya que la violencia contra las mujeres es un obstáculo para lograr los objetivos de igualdad, desarrollo y paz y viola y menoscaba el disfrute de los derechos humanos y las libertades fundamentales. Además la define ampliamente como una manifestación de las relaciones de poder históricamente desiguales entre mujeres y hombres. Existe ya incluso

## **20. ABENDUAREN 28KO 1/2004 LEGE ORGANIKOA, GENERO-INDARKERIAREN AURKA OSO-OSOKO BABESA EMATEKO NEURRIEI BURUZKOA**

(2004ko abenduaren 29ko EAO, 313. zk.)

### **ZIOEN AZALPENA**

I

Genero-indarkeria ez da esparru pribatuan eragina duen arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren agerikorik ikaragarriena da. Emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak.

Espainiako Konstituzioak 15. artikuluan jaso du guztiek duten eskubidea, bizitza eta osotasun fisikorako nahiz moralerako; ezin da inoiz torturarik egin, ez eta gizabidezkoak ez diren edo apalesgarriak diren zigor edo tratuak ezarri ere. Gainera, Espainiako Konstituzioaren arabera, eskubide horiek lotesleak dira botere publiko guztientzat, eta lege bidez bakarrik arautu ahal da eskubide horien egikaritza.

Nazio Batuen Elkarteak, 1995eko IV. Mundu-konferentzian aitortu zuen emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat dela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak lortzeko, eta urratu eta kaltetu egiten duela giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen gozamena. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria definitu zuen, botere-harremanetan emakumeen eta gizonen artean historian zehar izan diren desberdintasunen ageriko gisa.

una definición técnica del síndrome de la mujer maltratada que consiste en «las agresiones sufridas por la mujer como consecuencia de los condicionantes socioculturales que actúan sobre el género masculino y femenino, situándola en una posición de subordinación al hombre y manifestadas en los tres ámbitos básicos de relación de la persona: maltrato en el seno de las relaciones de pareja, agresión sexual en la vida social y acoso en el medio laboral».

En la realidad española, las agresiones sobre las mujeres tienen una especial incidencia, existiendo hoy una mayor conciencia que en épocas anteriores sobre ésta, gracias, en buena medida, al esfuerzo realizado por las organizaciones de mujeres en su lucha contra todas las formas de violencia de género. Ya no es un «delito invisible», sino que produce un rechazo colectivo y una evidente alarma social.

## II

Los poderes públicos no pueden ser ajenos a la violencia de género, que constituye uno de los ataques más flagrantes a derechos fundamentales como la libertad, la igualdad, la vida, la seguridad y la no discriminación proclamados en nuestra Constitución. Esos mismos poderes públicos tienen, conforme a lo dispuesto en el artículo 9.2 de la Constitución, la obligación de adoptar medidas de acción positiva para hacer reales y efectivos dichos derechos, removiendo los obstáculos que impiden o dificultan su plenitud.

En los últimos años se han producido en el derecho español avances legislativos en materia de lucha contra la violencia de género, tales como la Ley Orgánica 11/2003, de 29 de septiembre, de Medidas Concretas en

Gainera, bada tratu txarrak jasaten dituen emakumearen sindromearen definizioa; síndrome hori datza «emakumeak jasandako erasoetan, gizonen eta emakumeen generoan eragina duten inguruabar soziokulturalen ondorioz; eraso horiek emakumea gizonaren mendeko bihurtzen dute, eta pertsonak dituen harremanen oinarrizko hiru esparruetan ageri ohi dira: tratu txarrak bikote-harremanetan, sexu-erasoa gizarte-bizitzan eta jazarpena lan-inguruan».

Espainiako errealitatean, emakumeen aurkako erasoek berebiziko eragina dute. Gaur egun, iraganean baino kontzientzia gehiago dago horren inguruan, hein handi batean emakumeen erakundeek egindako esfortzuari esker, genero-indarkeria mota guztien aurkako borrokan. «Delitu ikusezina» izateari utzi dio, eta taldearen ezespenaz gain, gizartean ezinegona eragiten du.

## II.

Botere publikoak ezin dira gelditu egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarrizko eskubideak, hala nola, askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza. Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publiko horiek dute ekitza positiborako neurriak hartzeko betebeharra, eskubide horiek benetakoak eta eragingarriak izan daitezen, eskubide horien osotasuna eragotzi edo zailtzen dituzten oztopoak kenduz.

Azken urteotan, Espainiako zuzenbidean aurrerapausoak eman dira legegintzan, genero-indarkeriaren aurkako borrokari dagokionez, horren adibide izanik irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa, Neurri Zehatzei

Materia de Seguridad Ciudadana, Violencia Doméstica e Integración Social de los Extranjeros; la Ley Orgánica 15/2003, de 25 de noviembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal, o la Ley 27/2003, de 31 de julio, reguladora de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica; además de las leyes aprobadas por diversas Comunidades Autónomas, dentro de su ámbito competencial. Todas ellas han incidido en distintos ámbitos civiles, penales, sociales o educativos a través de sus respectivas normativas.

La Ley pretende atender a las recomendaciones de los organismos internacionales en el sentido de proporcionar una respuesta global a la violencia que se ejerce sobre las mujeres. Al respecto se puede citar la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación sobre la mujer de 1979; la Declaración de Naciones Unidas sobre la eliminación de la violencia sobre la mujer, proclamada en diciembre de 1993 por la Asamblea General; las Resoluciones de la última Cumbre Internacional sobre la Mujer celebrada en Pekín en septiembre de 1995; la Resolución WHA49.25 de la Asamblea Mundial de la Salud declarando la violencia como problema prioritario de salud pública proclamada en 1996 por la OMS; el informe del Parlamento Europeo de julio de 1997; la Resolución de la Comisión de Derechos Humanos de Naciones Unidas de 1997; y la Declaración de 1999 como Año Europeo de Lucha Contra la Violencia de Género, entre otros. Muy recientemente, la Decisión nº 803/2004/CE del Parlamento Europeo, por la que se aprueba un programa de acción comunitario (2004-2008) para

buruzkoa, Herritarren Segurtasunaren, Etxeko Indarkeriaren eta Atzerritarrak Gizarteratzearen Gaian; azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldarazi duena; edo uztailaren 31ko 27/2003 Legea, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua Arautu duena; bai eta autonomia-erkidegoek, euren eskumen-esparruan, onetsitako legeak ere. Lege horiek guztiek euren arautegien bidez eragina izan dute esparru desberdinetan, zibilean, penalean, gizarte-esparruan edo hezkuntza-esparruan.

Legearen xedea da nazioarteko erakundeen gomendioak kontuan hartzea, emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriari erantzun osoa emateko. Esangura horretan aipa daitezke, besteak beste, emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko 1979ko Konbentzioa; Nazio Batuen Adierazpena, emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa, Biltzar Orokorrak 1993ko abenduan aldarrikatutakoa; emakumeari buruz 1995eko irailean Pekinen egin zen nazioarteko azken goi-bilerako Ebazpenak; Osasunaren Munduko Biltzarraren WHA49.25 Ebazpena, OMEk aldarrikatu zuena 1996an, osasun publikoarentzat indarkeria lehentasunezko arazoa zela adieraziz; Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordearen 1997ko Ebazpena; eta 1999ko Adierazpena, Genero-indarkeriaren aurkako Europako Urteari buruzkoa. Oraintsu, Europako Parlamentuko 803/2004/EE zenbakidun Erabakiak, Europako Erkidegoko ekintza-programa (2004-2008) onetsi duenak, haurren, gazteen eta emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria prebenitzeko eta indarkeria horren aurka egiteko, eta biktimak eta

prevenir y combatir la violencia ejercida sobre la infancia, los jóvenes y las mujeres y proteger a las víctimas y grupos de riesgo (programa Daphne II), ha fijado la posición y estrategia de los representantes de la ciudadanía de la Unión al respecto.

El ámbito de la Ley abarca tanto los aspectos preventivos, educativos, sociales, asistenciales y de atención posterior a las víctimas, como la normativa civil que incide en el ámbito familiar o de convivencia donde principalmente se producen las agresiones, así como el principio de subsidiariedad en las Administraciones Públicas. Igualmente se aborda con decisión la respuesta punitiva que deben recibir todas las manifestaciones de violencia que esta Ley regula.

La violencia de género se enfoca por la Ley de un modo integral y multidisciplinar, empezando por el proceso de socialización y educación.

La conquista de la igualdad y el respeto a la dignidad humana y la libertad de las personas tienen que ser un objetivo prioritario en todos los niveles de socialización.

La Ley establece medidas de sensibilización e intervención en el ámbito educativo. Se refuerza, con referencia concreta al ámbito de la publicidad, una imagen que respete la igualdad y la dignidad de las mujeres. Se apoya a las víctimas a través del reconocimiento de derechos como el de la información, la asistencia jurídica gratuita y otros de protección social y apoyo económico. Proporciona por tanto una respuesta legal integral que abarca tanto las normas procesales, creando nuevas instancias, como normas sustantivas penales y civiles, incluyendo la debida formación de los operadores sanitarios, policiales y

arriskuan dauden taldeak babesteko (II. Daphne programa), ezarri du horren inguruan herritarren ordezkariak Europar Batasunean duten jarrera eta estrategia.

Legearen esparruak bere baitan hartzen ditu, dela erasoen ondoren biktimei begira kontuan hartu beharreko alde prebentiboak, hezkuntzakoak, gizarte-izaerakoak, laguntza-izaerakoak eta arretakoak, dela arautegi zibila, familia-esparruan edo elkarbizitzan eragina duena, erasoak, batik bat, esparru horretan gauzatzen direlako, dela subsidiaritate-printzipioa Administrazio publikoetan. Era berean, ziurtasunez heldu zaio zigorra ezartzeari, lege honek arautzen dituen indarkeria-agerpen guztiei.

Lege honek genero-indarkeria bideratu du osotasunean eta diziplina anitzen ikuspuntutik, gizarteratze- eta hezkuntza-prozesutik hasita.

Berdintasunaren eta giza duintasunarenganako errespetuaren lorpenak, eta pertsonen askatasuna lehentasunezko helburu izan behar dira gizarteratze-maila guztietan.

Legeak sentsibilizazio-neurriak eta esku-hartzeko neurriak ezarri ditu hezkuntza-esparruan. Publizitate-esparruari beren-beregi dagokionez, indartu da emakumeen berdintasuna eta duintasuna errespetatzen dituen irudia. Biktimei laguntza eskaintzen zaie, edozenbat eskubide aitortuz, hala nola, informazioa jasotzeko, doako laguntza juridikoa izateko, eta gizarte-babesa nahiz ekonomiaren aldetik laguntza izateari dagokionez izan ahal diren beste batzuk. Horrenbestez, legeak erantzun osoa ematen du, eta bere baitan hartzen ditu, hala arau prozesalak, auzialdi berriak sortuz, nola arau substantiboak, penalak zein

jurídicos responsables de la obtención de pruebas y de la aplicación de la ley.

Se establecen igualmente medidas de sensibilización e intervención en el ámbito sanitario para optimizar la detección precoz y la atención física y psicológica de las víctimas, en coordinación con otras medidas de apoyo.

Las situaciones de violencia sobre la mujer afectan también a los menores que se encuentran dentro de su entorno familiar, víctimas directas o indirectas de esta violencia. La Ley contempla también su protección no sólo para la tutela de los derechos de los menores, sino para garantizar de forma efectiva las medidas de protección adoptadas respecto de la mujer.

### III

La Ley se estructura en un título preliminar, cinco títulos, veinte disposiciones adicionales, dos disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y siete disposiciones finales.

En el título preliminar se recogen las disposiciones generales de la Ley que se refieren a su objeto y principios rectores.

En el título I se determinan las medidas de sensibilización, prevención y detección e intervención en diferentes ámbitos. En el educativo se especifican las obligaciones del sistema para la transmisión de valores de respeto a la dignidad de las mujeres y a la igualdad entre hombres y mujeres. El objetivo fundamental de la educación es el de proporcionar una formación integral que les permita conformar su propia identidad, así como construir una concepción de la realidad que integre a

zibilak; halaber, osasun-arloko langileen, polizien eta legelarien behar bezalako prestakuntza ezarri du, horiek baitira frogak lortzeko eta legea aplikatzeko ardura dutenak.

Orobat, sentsibilizazio-neurriak eta esku hartzeko neurriak ezarri dira, osasun-esparruan, biktimen detekzio goiztiarra eta biktimei eskaini beharreko arreta fisiko eta psikologikoa hobetzeko, laguntza izaerako beste neurri batzuekin koordinatuta.

Emakumearen aurkako indarkeria-egoerek eragina dute, berebat, euren familia-ingurunean dauden adingabekoengan, indarkeria horren zuzeneko nahiz zeharkako biktima direlako. Legeak adingabeko horiek ere babestu ditu, euren eskubideak babesteaz gain, emakumeari begira hartutako babes-neurriak eragingarritasunez bermatzeko.

### III

Legearen egitura osatu dute atariko tituluak, bost tituluk, hogeitxeko gehigarrik, bi xedapen irangakorrek, xedapen indargabetzaile bakarrak eta zazpi azken xedapenek.

Atariko tituluan legearen xedapen orokorrak jaso dira, legearen xedeari eta printzipio artezkariari buruzkoak.

I. tituluan ezarri dira esparru desberdinetako sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak. Hezkuntza-esparruan zehaztu dira sistemaren betebeharrak, emakumeenganako duintasuna eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzeko balioak transmititu daitezten. Hezkuntzaren helburu nagusia da heziketa osoa eskaintzea, ahalbidetzen diena nortasun propioa osatzea, bai eta errealitatearen kontzepzioa eratzea ere,

la vez el conocimiento y valoración ética de la misma.

En la Educación Secundaria se incorpora la educación sobre la igualdad entre hombres y mujeres y contra la violencia de género como contenido curricular, incorporando en todos los Consejos Escolares un nuevo miembro que impulse medidas educativas a favor de la igualdad y contra la violencia sobre la mujer.

En el campo de la publicidad, ésta habrá de respetar la dignidad de las mujeres y su derecho a una imagen no estereotipada, ni discriminatoria, tanto si se exhibe en los medios de comunicación públicos como en los privados. De otro lado, se modifica la acción de cesación o rectificación de la publicidad legitimando a las instituciones y asociaciones que trabajan a favor de la igualdad entre hombres y mujeres para su ejercicio.

En el ámbito sanitario se contemplan actuaciones de detección precoz y apoyo asistencial a las víctimas, así como la aplicación de protocolos sanitarios ante las agresiones derivadas de la violencia objeto de esta Ley, que se remitirán a los Tribunales correspondientes con objeto de agilizar el procedimiento judicial. Asimismo, se crea, en el seno del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud, una Comisión encargada de apoyar técnicamente, coordinar y evaluar las medidas sanitarias establecidas en la Ley.

En el título II, relativo a los derechos de las mujeres víctimas de violencia, en su capítulo I, se garantiza el derecho de acceso a la información y a la asistencia social integrada, a través de servicios de atención permanente, urgente y con especialización de

aldi berean barneratzen dituen errealitate horren ezagutza eta balorazio etikoa.

Bigarren Hezkuntzara curriculum-eduki gisa biltzen da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko eta genero-indarkeriaren aurkako hezkuntza; eskola-kontseilu guztietara kide berri bat gehitzen da, berdintasunaren alde eta emakumearen aurkako indarkeriaren kontra hezkuntza-neurriak bultzatzeko.

Publizitatearen esparruan, publizitateak errespetatu beharko du emakumeen duintasuna eta estereotipatu gabeko irudirako eskubidea, eta ez da bereizkeriazkoa izango, publizitate hori komunikabide publikoetan nahiz pribatuetan agertzea gorabehera. Bestalde, publizitatearen bukarazte-edo zuzenketa-akzioa aldarazi da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten erakunde eta elkarteak legitimatuz hori egikaritzeko.

Osasun-arloan, biktimen detekzio goiztiarrerako eta biktimei laguntza emateko jarduerak jaso dira, bai eta osasun-protokoloen aplikazioa ere, erasoak gertatzen direnean, lege honen objektu den indarkeriaren ondorioz; protokolo horiek auzitegiei bidaliko zaizkie, prozedura judiziala arintzeko xedearekin. Modu berean, Osasunaren Sistema Nazionalaren Lurralde Arteko Kontseiluan batzorde bat sortu da, legean ezarritako osasun-neurriak teknikoki oinarritzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

II. tituluan, indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideei buruzkoan, I. kapituluan, bermatu da informazioaren berri izateko eta gizarte-laguntza osoa izateko eskubidea, arreta-zerbitzuen bidez; halako zerbitzuak izango dira iraunkorrak eta presakoak, eta izango

prestaciones y multidisciplinariedad profesional. Con el fin de coadyuvar a la puesta en marcha de estos servicios, se dotará un Fondo al que podrán acceder las Comunidades Autónomas, de acuerdo con los criterios objetivos que se determinen en la respectiva Conferencia Sectorial.

Asimismo, se reconoce el derecho a la asistencia jurídica gratuita, con el fin de garantizar a aquellas víctimas con recursos insuficientes para litigar una asistencia letrada en todos los procesos y procedimientos, relacionados con la violencia de género, en que sean parte, asumiendo una misma dirección letrada su asistencia en todos los procesos. Se extiende la medida a los perjudicados en caso de fallecimiento de la víctima.

Se establecen, asimismo, medidas de protección en el ámbito social, modificando el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, para justificar las ausencias del puesto de trabajo de las víctimas de la violencia de género, posibilitar su movilidad geográfica, la suspensión con reserva del puesto de trabajo y la extinción del contrato.

En idéntico sentido se prevén medidas de apoyo a las funcionarias públicas que sufran formas de violencia de las que combate esta Ley, modificando los preceptos correspondientes de la ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública.

Se regulan, igualmente, medidas de apoyo económico, modificando el Real Decreto Legislativo 1/1994, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la

dituzte prestazio bereziak nahiz diziplina anitzetako profesionalak. Zerbitzu horiek abian jar daitezten laguntzeko, funts bat hornituko da; horretara jo ahal izango dute autonomia-erkidegoek, kasuan kasuko sektoreko konferentzian ezarritako irizpide objektiboekin bat etorritz.

Orobat, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortu da, auzitan aritzeko behar besteko baliabiderik ez duten biktimei abokatu-laguntza bermatzeko, genero-indarkeriarekin zerikusia duten prozesu eta prozedura guztietan, baldin eta biktima horiek alderdi badira halakoetan; abokatu berberak hartuko du bere gain biktima horien laguntza prozesu guztietan. Neurri hori kaltetunei hedatzen zaie, biktima hiltzen bada.

Horrezaz landa, gizarte-esparruan babes neurriak ezarri dira. Hori dela eta, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege-dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena, aldarazi da, justifikatu ahal izateko genero-indarkeriaren biktimen absentiak lanpostuetan, eta ahalbidetzeko biktima horien mugigarritasun geografikoa, kontratuak etetea, lanpostua erreserbatuta, eta kontratuak azkentzea.

Esangura berean, emakume diren funtzionario publikoei laguntzeko neurriak ezarri dira, funtzionario horiek lege honek borrokatzen dituen indarkeria-motak jasaten dituztenean; halatan, kasuan kasuko manuak aldarazi dira abuztuaren 2ko 30/1984 Legean, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoan.

Laguntza ekonomikorako neurriak ere arautu dira, eta, horrenbestez, aldarazi da ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege-dekretua, Gizarte Segurantzaren Lege

Seguridad Social, para que las víctimas de la violencia de género generen derecho a la situación legal de desempleo cuando resuelvan o suspendan voluntariamente su contrato de trabajo.

Para garantizar a las víctimas de violencia de género que carezcan de recursos económicos unas ayudas sociales en aquellos supuestos en que se estime que la víctima debido a su edad, falta de preparación general especializada y circunstancias sociales no va a mejorar de forma sustancial su empleabilidad, se prevé su incorporación al programa de acción específico creado al efecto para su inserción profesional. Estas ayudas, que se modularán en relación a la edad y responsabilidades familiares de la víctima, tienen como objetivo fundamental facilitarle unos recursos mínimos de subsistencia que le permitan independizarse del agresor; dichas ayudas serán compatibles con las previstas en la Ley 35/1995, de 11 de diciembre, de Ayudas y Asistencia a las Víctimas de Delitos Violentos y Contra la Libertad Sexual.

En el título III, concerniente a la Tutela Institucional, se procede a la creación de dos órganos administrativos. En primer lugar, la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer, en el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, a la que corresponderá, entre otras funciones, proponer la política del Gobierno en relación con la violencia sobre la mujer y coordinar e impulsar todas las actuaciones que se realicen en dicha materia, que necesariamente habrán de comprender todas aquellas actuaciones que hagan efectiva la garantía de los derechos de las mujeres. También se crea el Observatorio Estatal de

Orokorren testu bategina onetsi duena, genero-indarkeriaren biktimek legeko langabezia-egoerarako eskubidea izan dezaten, euren lan-kontratua borondatez suntsiarazten edo eteten dutenean.

Genero-indarkeriaren biktimek balbiabide ekonomikorik ez dutenean, halakoei gizarte-laguntzak bermatzeko, ezarri da biktimak euren lanbideratzerako sortutako ekintza-programa bereziari ekingo diotela, uste denean biktimak ez duela behar beste hobetuko enplegua bilatzeko egoera, adinarengatik, orokorrean prestakuntza berezirik ez izateagatik eta gizarte-inguruabarrengatik. Laguntza horiek, biktimaren adinaren eta familia-eratzukizunen arabera modulatuak direnak, oinarritzko helburutzat dute biktimari iraupenerako gutxieneko baliabideak ematea, erasotzailearengandik modu independentean bizitzea ahalbidetuko diotenak; laguntza horiek bateragarriak izango dira abenduaren 11ko 35/1995 Legeak, Indarkeriazko Delituen eta Sexu-askatasunaren aurkako Delituen Biktimak Laguntzeko eta Sorostekoak, ezarritakoekin.

III. tituluan, Babes Instituzionalari buruzkoan, administrazio-organoak sortu dira. Lehendabizi, Emakumearenganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Berezia, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioan. Horrek izango dituen eginkizunen artean daude, bestek beste, Gobernuaren politika proposatzea, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez, eta gai horretan gauzatzen diren jarduera guztiak koordinatu eta bultzatzea; jarduera horien artean nahitaez izango dira emakumeen eskubide-bermeak eragingarri egiten dituzten jarduera guztiak. Halaber, Emakumearen



Violencia sobre la Mujer, como un órgano colegiado en el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, y que tendrá como principales funciones servir como centro de análisis de la situación y evolución de la violencia sobre la mujer, así como asesorar y colaborar con el Delegado en la elaboración de propuestas y medidas para erradicar este tipo de violencia.

En su título IV la Ley introduce normas de naturaleza penal, mediante las que se pretende incluir, dentro de los tipos agravados de lesiones, uno específico que incremente la sanción penal cuando la lesión se produzca contra quien sea o haya sido la esposa del autor, o mujer que esté o haya estado ligada a él por una análoga relación de afectividad, aun sin convivencia.

También se castigarán como delito las coacciones leves y las amenazas leves de cualquier clase cometidas contra las mujeres mencionadas con anterioridad.

Para la ciudadanía, para los colectivos de mujeres y específicamente para aquellas que sufren este tipo de agresiones, la Ley quiere dar una respuesta firme y contundente y mostrar firmeza plasmándolas en tipos penales específicos.

En el título V se establece la llamada Tutela Judicial para garantizar un tratamiento adecuado y eficaz de la situación jurídica, familiar y social de las víctimas de violencia de género en las relaciones intrafamiliares.

Desde el punto de vista judicial nos encontramos ante un fenómeno complejo en el que es necesario intervenir desde distintas perspectivas jurídicas, que tienen que abarcar desde las normas procesales y sustantivas hasta las disposiciones relativas a la atención a las víctimas, intervención que sólo es posible a través de una

Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia sortu da, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioko kide anitzeko organo gisa. Behatokiaren eginkizunik garrantzitsuena izango da, emakumearen aurkako indarkeriaren egoera eta bilakaera aztertzea, bai eta Ordezkariekin batera aholkuak eman eta laguntza eskaintzea ere, indarkeria-mota hori ezabatzeko proposamenak eta neurriak gauzatzean.

IV. tituluan, legeak zigor-izaerako arauak sartu ditu; halako arauen bidez lesioen tipo astunduetara bildu nahi da tipo berezi bat, zigorra gehitzen duena, lesioa gauzatzen denean egilearen emaztea den edo izan den pertsonaren aurka, edo egilearekin antzeko maitasun-harremanak dituen edo izan dituen emakumearen aurka, nahiz eta elkarbizitza ez izan. Delitu gisa zigortuko dira, berebat, edozein motatako derrigortze arinak eta mehatxu arinak, arestian aipatu emakumeen aurka gauzatu badira.

Herritarrei, emakume-taldeei eta, bereziki, halako erasoak jasaten dituztenei begira, legeak nahi du erantzun irmo eta sendoa ematea, eta irmotasuna agertzea, hori guztiori tipo penal berezietan jasoz.

V. tituluan ezarri da Babes Judiziala deritzona, familia arteko harremanetan genero-indarkeriaren biktimen egoera juridikoak eta familia- nahiz gizarte-egoerak tratamendu egokia eta eragingarria izatea bermatzeko.

Ikuspuntu judizialek begiratu gero, fenomeno katramilatsua dugu eskuartean; egin-eginean ere, ikuspegi juridiko desberdinek esku hartu behar dute, hala arau prozesal eta substantiboek, nola biktimen arretari buruzko xedapenek, eta esku-hartze hori legeria bereziaren bidez bakarrik lortu ahal da.

legislación específica.

Una Ley para la prevención y erradicación de la violencia sobre la mujer ha de ser una Ley que recoja medidas procesales que permitan procedimientos ágiles y sumarios, como el establecido en la Ley 27/2003, de 31 de julio, pero, además, que compagine, en los ámbitos civil y penal, medidas de protección a las mujeres y a sus hijos e hijas, y medidas cautelares para ser ejecutadas con carácter de urgencia.

La normativa actual, civil, penal, publicitaria, social y administrativa presenta muchas deficiencias, debidas fundamentalmente a que hasta el momento no se ha dado a esta cuestión una respuesta global y multidisciplinar. Desde el punto de vista penal la respuesta nunca puede ser un nuevo agravio para la mujer.

En cuanto a las medidas jurídicas asumidas para garantizar un tratamiento adecuado y eficaz de la situación jurídica, familiar y social de las víctimas de violencia sobre la mujer en las relaciones intrafamiliares, se han adoptado las siguientes: conforme a la tradición jurídica española, se ha optado por una fórmula de especialización dentro del orden penal, de los Jueces de Instrucción, creando los Juzgados de Violencia sobre la Mujer y excluyendo la posibilidad de creación de un orden jurisdiccional nuevo o la asunción de competencias penales por parte de los Jueces Civiles. Estos Juzgados conocerán de la instrucción, y, en su caso, del fallo de las causas penales en materia de violencia sobre la mujer, así como de aquellas causas civiles relacionadas, de forma que unas y otras en la primera instancia sean objeto de tratamiento procesal ante la misma sede. Con ello

Emakumearen aurkako indarkeria prebenitu eta ezabatu nahi duen legeak neurri prozesalak jaso behar ditu, prozedura arinak eta sumarioak ahalbidetzen dituztenak, uztailaren 31ko 27/2003 Legeak ezarritakoaren antzekoak; halaber, halako lege batek esparru zibil eta penaletan bateratu behar ditu, emakumeentzako eta euren seme-alabentzako babes-neurriak eta presa-izaerarekin betearazteko moduko kautela-neurriak

Gaur egungo arautegiak, zibilak, penalak, publizitateari buruzkoak, lan-arlokoak eta administrazio-arlokoak, gabezia ugari du; gabezia horiek daude orain arte gai horri ez zaiolako erantzunik eman, osoa eta diziplina anitz kontuan hartzen dituenak. Ikuspuntu penaletik, erantzun horrek emakumearentzat ezin du eragin beste kalterik.

Familia arteko harremanetan genero-indarkeriaren biktimen egoera juridikoak eta familia- nahiz gizarte-egoerak tratamendu egokia eta erangigarria izan dezaten bermatzeko hurrengo neurriak hartu dira: Espainiako tradizio juridikoarekin bat etorritik, zigor-arloan espezializazio-formula baten alde egin da, instrukzio-epaileei dagokienez; modu horretara, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiak sortu dira, eta baztertu da jurisdikzio-ordena berri bat sortzeko aukera edo epaile zibilek zigor-eskumenak hartzeko aukera. Epaitegi horien ardurakoak izango dira instrukzioa, eta, hala denean, zigor-auzien epaia, emakumearen aurkako indarkeriaren gaian, bai eta gai horri lotuta dauden auzi zibilen epaia ere. Horrenbestez, lortu nahi da auzi batzuek zein besteek lehen auzialdian egoitza berean izatea prozesu-tratamendua. Horrela ziurtatzen da

se asegura la mediación garantista del debido proceso penal en la intervención de los derechos fundamentales del presunto agresor, sin que con ello se reduzcan lo más mínimo las posibilidades legales que esta Ley dispone para la mayor, más inmediata y eficaz protección de la víctima, así como los recursos para evitar reiteraciones en la agresión o la escalada en la violencia.

Respecto de la regulación expresa de las medidas de protección que podrá adoptar el Juez de Violencia sobre la Mujer, se ha optado por su inclusión expresa, ya que no están recogidas como medidas cautelares en la Ley de Enjuiciamiento Criminal, que sólo regula la prohibición de residencia y la de acudir a determinado lugar para los delitos recogidos en el artículo 57 del Código Penal (artículo 544bis LECrim, introducido por la LO 14/1999). Además se opta por la delimitación temporal de estas medidas (cuando son medidas cautelares) hasta la finalización del proceso. Sin embargo, se añade la posibilidad de que cualquiera de estas medidas de protección pueda ser utilizada como medida de seguridad, desde el principio o durante la ejecución de la sentencia, incrementando con ello la lista del artículo 105 del Código Penal (introducido por la LO 11/1999), y posibilitando al Juez la garantía de protección de las víctimas más allá de la finalización del proceso.

Se contemplan normas que afectan a las funciones del Ministerio Fiscal, mediante la creación del Fiscal contra la Violencia sobre la Mujer, encargado de la supervisión y coordinación del Ministerio Fiscal en este aspecto, así como mediante la creación de una Sección equivalente en cada Fiscalía de los Tribunales Superiores de Justicia y de las Audiencias Provinciales a las

ezarri beharreko zigor-prozesuak berme-eginkizunak izatea, ustezko erasotsailearen oinarrizko eskubideei dagokienez. Alabaina, horrek ez du inondik inora gutxituko biktimari begira lege honek ezarritako aukerak, babesa handiagoa, berehalakoagoa eta eragingarria izan dadin, ezta errekurtsuak ere, eraso erreplikatzeko edo indarkeria areagotzea saihesteko.

Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaileak hartu ahal izango dituen babes-neurrien berariazko arauketari erreparatuz, erabaki da neurri horiek esanbidez ezartzea; izan ere, neurriok ez dira jaso kautela-neurri gisa Prozedura Kriminalaren Legean. Hurrean ere, lege horrek bizilekua izatea eta leku jakin batera joatea baino ez ditu debekatu, Zigor Kodearen 57. artikuluan jasotako delituei begira (PKLren 544bis artikulua, 14/1999 LOK gehitutakoa). Gainera, neurri horiek denboran mugatzearen alde egin da (kautela-neurrien kasuan), prozesua amaitu arte. Aitzitik, babes-neurri horietarik edozein segurtasun-neurri gisa erabiltzeko aukera ezarri da, hasieratik edo epaia betearazi bitartean; horrekin luzatu egin da Zigor Kodearen 105. artikuluko zerranda (11/1999 LOK gehitutakoa), eta epaileari ahalbideratu zaio biktimak babesteko bermea, prozesua amaitu ondoren ere.

Fiskaltzaren eginkizunak ukitzen dituzten arauak ezarri dira, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Fiskala sortuz, gai honetan Fiskaltza gainbegiratu eta koordinatzeaz arduratuko dena, bai eta atal baliokidea eratuz ere, auzitegi nagusien eta probintziako audientzien fiskaltzetan; azken horiei atxikiko zaizkie gaian espezializatuta dauden

que se adscribirán Fiscales con especialización en la materia. Los Fiscales intervendrán en los procedimientos penales por los hechos constitutivos de delitos o faltas cuya competencia esté atribuida a los Juzgados de Violencia sobre la Mujer, además de intervenir en los procesos civiles de nulidad, separación o divorcio, o que versen sobre guarda y custodia de los hijos menores en los que se aleguen malos tratos al cónyuge o a los hijos.

En sus disposiciones adicionales la Ley lleva a cabo una profunda reforma del ordenamiento jurídico para adaptar las normas vigentes al marco introducido por el presente texto. Con objeto de armonizar las normas anteriores y ofrecer un contexto coordinado entre los textos legales, parte de la reforma integral se ha llevado a cabo mediante la modificación de normas existentes. En este sentido, las disposiciones adicionales desarrollan las medidas previstas en el articulado, pero integrándolas directamente en la legislación educativa, publicitaria, laboral, de Seguridad Social y de Función Pública; asimismo, dichas disposiciones afectan, en especial, al reconocimiento de pensiones y a la dotación del Fondo previsto en esta Ley para favorecer la asistencia social integral a las víctimas de violencia de género.

En materia de régimen transitorio se extiende la aplicación de la presente Ley a los procedimientos en tramitación en el momento de su entrada en vigor, aunque respetando la competencia judicial de los órganos respectivos. Por último, la presente Ley incluye en sus disposiciones finales las habilitaciones necesarias para el desarrollo normativo de sus preceptos.

fiskalak. Fiskalek esku hartuko dute zigor-prozeduretan, prozedura horiek hasten direnean, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiek zein delitu edo falten gaineko eskumena izan eta halakotzat jotzen diren egitateengatik; halaber, esku artuko dute deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozedura zibiletan, edo adingabeko seme-alaben jagoletza eta zaintzari buruzko prozeduretan, non ezkontidearen nahiz seme-alaben aurkako tratu txarrak alegatzen diren.

Legeak bere xedapen gehigarrietan antolamendu juridikoa sakon eraldatu du, indarreko arauak egokitzeko testu honek eraturako esparrura. Aurreko arauak harmonizatzeko eta legetestuen artean testuinguru koordinatua eskaintzeko xedearekin, eraldaketa osoaren zati bat indarrean dauden arauak aldaraziz gauzatu da. Esangura horretan, xedapen gehigarriek artikuluetan zehar ezarritako neurriak garatu dituzte, baina garapenok zuzenean txertatuz hezkuntza-arloko, publizitate-arloko, lan-arloko, Gizarte Segurantzako eta Funtzio Publikoko legerian; era berean, xedapen horiek modu berezian ukitu dute petsioen aitorpena eta legean ezarritako funtsaren horniketa, genero-indarkeriaren biktimei gizarte-laguntza osoa ahalbidetzeko.

Araubide iragankorrari dagokionez, lege hau aplikatuko zaie berau indarrean jartzeko unean izapideak hasita zituzten prozedurei, baina errespetatu egingo da kasuan kasuko organoen eskumen judiziala.

Amaitzeko, lege honek azken xedapenetan jaso ditu bere manuen arau-garapenerako behar diren baimenak.

## TÍTULO PRELIMINAR

### *Artículo 1º. Objeto de la Ley.*

1. La presente Ley tiene por objeto actuar contra la violencia que, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres, se ejerce sobre éstas por parte de quienes sean o hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aun sin convivencia.

2. Por esta Ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a sus víctimas.

3. La violencia de género a que se refiere la presente Ley comprende todo acto de violencia física y psicológica, incluidas las agresiones a la libertad sexual, las amenazas, las coacciones o la privación arbitraria de libertad.

### **Artículo 2. Principios rectores.**

A través de esta Ley se articula un conjunto integral de medidas encaminadas a alcanzar los siguientes fines:

a) Fortalecer las medidas de sensibilización ciudadana de prevención, dotando a los poderes públicos de instrumentos eficaces en el ámbito educativo, servicios sociales, sanitario, publicitario y mediático.

b) Consagrar derechos de las mujeres víctimas de violencia de género, exigibles ante las Administraciones Públicas, y así asegurar un acceso rápido, transparente y eficaz a los servicios establecidos al efecto.

c) Reforzar hasta la consecución de los

## ATARIKO TITULUA

### **1. artikulua. Legearen xedea.**

1. Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.

2. Lege honen bidez babes-neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babesa ematea.

3. Lege honek aipatu genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere.

### **2. artikulua. Printzipio artezkariak.**

Lege honen bidez neurrien multzo osoa ezarri da, neurri horien helburua izanik hurrengo xedeak lortzea:

a) Prebentzioaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko neurriak indartzea; horretarako botere publikoak tresna eragingarriekin hornituko dira, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren, publicitatearen eta komunikabideen esparruan.

b) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak sendotzea, eskatzeko modukoak direnak Administrazio publikoetan; modu horretara ziurtatzen da ondore horietarako ezarritako zerbitzuetara jotzea, azkar, gardentasunez eta eragingarritasunez.

c) Legearen helburuek ezarritako

mínimos exigidos por los objetivos de la ley los servicios sociales de información, de atención, de emergencia, de apoyo y de recuperación integral, así como establecer un sistema para la más eficaz coordinación de los servicios ya existentes a nivel municipal y autonómico.

d) Garantizar derechos en el ámbito laboral y funcional que concilien los requerimientos de la relación laboral y de empleo público con las circunstancias de aquellas trabajadoras o funcionarias que sufran violencia de género.

e) Garantizar derechos económicos para las mujeres víctimas de violencia de género, con el fin de facilitar su integración social.

f) Establecer un sistema integral de tutela institucional en el que la Administración General del Estado, a través de la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer, en colaboración con el Observatorio Estatal de la Violencia sobre la Mujer, impulse la creación de políticas públicas dirigidas a ofrecer tutela a las víctimas de la violencia contemplada en la presente Ley.

g) Fortalecer el marco penal y procesal vigente para asegurar una protección integral, desde las instancias jurisdiccionales, a las víctimas de violencia de género.

h) Coordinar los recursos e instrumentos de todo tipo de los distintos poderes públicos para asegurar la prevención de los hechos de violencia de género y, en su caso, la sanción adecuada a los culpables de los mismos.

i) Promover la colaboración y participación de las entidades,

gutxienekoak bete arte, informazio, arreta, larrialdi, babes eta sendabide osorako gizarte-zerbitzuak indartzea, bai eta sistema bat ezartzea, udalerrri eta autonomia-erkidego mailan alde zuzenak aurretik zeuden zerbitzuak eragingarritasun gehiagorekin koordinatzeko.

d) Lan-esparruan eta funtzionarioen esparruan eskubideak bermatzea, lan-harremanen eta enplegu publikoaren beharrezkoak uztartzen dituztenak genero-indarkeria jasaten duten emakume langileen edo funtzionarioen inguruabarrekin.

e) Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako eskubide ekonomikoak bermatzea, emakume horien gizarteratzea errazteko helburuarekin.

f) Babes instituzionalaren sistema osoa ezartzea; horren ondorioz, Estatuko Administrazio Orokorra, Emakumearenganako Indarkeriaren Kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziaren bidez, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren laguntzarekin, bultzatuko du lege honetan ezarritako indarkeriaren biktimek babesteko politika publikoak sortzea.

g) Indarrean dagoen zigor- eta prozesu-esparrua indartzea, jurisdikzio-auzialdiek genero-indarkeriaren biktimei babes osoa ematea ziurtatzeko.

h) Botere publikoen era guztietako baliabide eta tresnak koordinatzea, ziurtatzeko genero-indarkeriazko egitateen prebentzioa eta, hala denean, egitate horien errudunei ezarri beharreko zehapen egokia.

i) Gizarte zibilean genero-indarkeriaren kontra jarduten duten entitate, elkarte

asociaciones y organizaciones que desde la sociedad civil actúan contra la violencia de género.

j) Fomentar la especialización de los colectivos profesionales que intervienen en el proceso de información, atención y protección a las víctimas.

k) Garantizar el principio de transversalidad de las medidas, de manera que en su aplicación se tengan en cuenta las necesidades y demandas específicas de todas las mujeres víctimas de violencia de género.

## **TÍTULO PRIMERO**

### **Medidas de sensibilización, prevención y detección.**

#### *Artículo 3. Planes de sensibilización.*

1. Desde la responsabilidad del Gobierno del Estado y de manera inmediata a la entrada en vigor de esta Ley, con la consiguiente dotación presupuestaria, se pondrá en marcha un Plan Nacional de Sensibilización y Prevención de la Violencia de Género que como mínimo recoja los siguientes elementos:

Que introduzca en el escenario social las nuevas escalas de valores basadas en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y de la igualdad entre hombres y mujeres, así como en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia, todo ello desde la perspectiva de las relaciones de género.

Dirigido tanto a hombres como a mujeres, desde un trabajo comunitario e intercultural.

Que contemple un amplio programa de formación complementaria y de reciclaje de los profesionales que intervienen en estas situaciones.

Controlado por una Comisión de amplia participación, que se creará en un plazo

eta organizazioen lankidetzeta eta partaidetzeta sustatzea.

j) Biktimen informazio-, arreta- eta babes-prozesuan parte hartzen duten kolektibo profesionalen espezializazioa suspertzea.

k) Neurrien zeharkakotasun-printzipioa bermatzea, hori aplikatzean kontuan har daitezen genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztien beharrian eta eskakizun bereziak.

## **LEHENENGO TITULUA**

### **Sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak**

#### **3. artikulua. Sentsibilizazio-planak.**

1. Estatuko Gobernuaren erantzukizunetik, eta lege hau indarrean jartzen den unetik, kasuan kasuko aurrekontu-zuzkidurarekin, abian jarriko da genero-indarkeriaren sentsibilizazio- eta prebentzio-plana; plan horrek, gutxienez, hurrengo osagaiak jasoko ditu:

Gizarte-egoeran txertatu behar ditu balio-mailaketa berriak, oinarritzko eskubide eta askatasunen errespetuan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritzen direnak, bai eta tolerantzia eta askatasuna elkarbizitzaren printzipio demokratikoen arabera egikaritzean ere. Hori guztiori gauzatzeko kontuan hartu behar da genero-harremanen ikuspegia.

Gizon nahiz emakumeentzat izan behar da, erkidegoan arituz eta kultura desberdinak kontuan hartuz.

Egoera horietan parte hartzen duten profesionalen prestakuntza osagarriko eta profesional horiek birziklatzeko programa zabala jaso behar du.

Plan hori partaidetzeta zabaleko batzorde batek kontrolatu behar du; batzorde

máximo de un mes, en la que se ha de asegurar la presencia de los afectados, las instituciones, los profesionales y de personas de reconocido prestigio social relacionado con el tratamiento de estos temas.

2. Los poderes públicos, en el marco de sus competencias, impulsarán además campañas de información y sensibilización específicas con el fin de prevenir la violencia de género.

3. Las campañas de información y sensibilización contra esta forma de violencia se realizarán de manera que se garantice el acceso a las mismas de las personas con discapacidad.

## **CAPÍTULO PRIMERO EN EL ÁMBITO EDUCATIVO.**

*Artículo 4. Principios y valores del sistema educativo.*

